

Nortasun nartzisistaren nahastea eta Salvador Dalí

JOANA ESTEVE OKARIZ, MIKEL HARANBURU OIHARBIDE, NEKANE BALLUERKA LASA, ARANTXA GOROSTIAGA MANTEROLA ETA MARIAN SOROA UDABE¹

EHU*

(Narcissistic personality disorder and Salvador Dalí)

Abstract

The aim of this paper is to describe the narcissistic disorder of personality and to analyze the psychological profile of Salvador Dalí. At the beginning of the article we have described the traits of people who have a narcissistic disorder. They have grandiose fantasies of fame and use strategies to distort and deny the information that goes against their image of perfection. Narcissists believe they are admired and accepted by their skills and special qualities, and will be rejected if they exhibit normal traits. Their concern is to achieve success in the professional and emotional field. They think they are special and unique, they are not like others and they deserve a special treatment. They think the rules are made for normal people and they are an exception. They manipulate others to achieve their goals. From the emotional point of view, they show no empathy. After analyzing the profile of narcissistic disorder, we have studied the causes and factors of its development and we have exposed the criteria for the differential diagnosis of narcissistic disorder. Finally, we have analyzed the personality of Salvador Dalí, relevant surrealist artist, who might have suffered from this disorder. We have provided information to know the biography of the painter and we have finished with the description of his psychological profile.

Keywords: *personality, disorder, narcissistic, Dalí*

Sarrera

Artikulu honen helburua Nortasun Nartzisistaren Nahastea deskribatzea eta Salvador Daliren profil nartzisista aztertzea da. Lanaren hasieran Nahaste Nar-

¹ Eskerrak eman nahi dizkiegu artikulua zuzentzeko gomendioak eman dizkiguten bi zuzentzaileei.

* Lehenengo lau autoreak Psikologia Fakultatekoak dira; azkenekoa, Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako. Mikel Haranburu ILCLiko ikerlari ere bada.

tzisista duten pertsonen bereizgarriak deskribatuko ditugu. Arrakastaren eta ospearen fantasia handiak dituzte eta beren buruaren irudi perfektuaren kontra doan informazioa distorsionatzeko edo ukatzeko estrategiak erabiliko dituzte. Nartzisistei iruditzen zaie beren trebetasun eta kualitate bereziengatik direla miretsiak eta onartuak, eta baztertuak izango direla bereizgarri normalak agertzen dituztenean. Arrakasta da kezkatzen dituen, profesioaren eta maitasunaren arloan. Bakarrak eta bereziak direla, salbuespen direla, besteak ez bezalakoak direla edo besteek baino gehiago merezi dutela uste izaten dute. Nartzisistek pentsatzen dute arauak jende arruntarentzat eginak daudela eta beraiei ez zaizkiela aplikatu behar. Beren helburuak lortzeko besteak erabiltzea da nartzisistaren jardura nagusia. Afektibitateari dagokionez, besteenganako inolako enpatiarik ez dute agertzen eta ez dira harreman intimoetarako gai. Nortasun Nartzisistaren Nahastearen profila deskribatu ondoren, nahaste horren garapean eragina duten zergati eta faktoreak arakatu ditugu eta diagnostiko diferentziala egiteko irizpideak agertu ditugu. Azkenik, Salvador Dalí artista surrealista ezagunaren nortasuna aztertu dugu, nahaste nartzisista jasan zuela pentsa baitaiteke. Margolari horren biografia ezagutzeko datuak eman ditugu, eta beroren profil psikologikoaren deskribapenarekin amaitu dugu.

Nortasun Nartzisistaren Nahastea duten pertsonen deskribapena

Pertsona nartzisistak handitzat eta berezitzat dauka bere burua, gainbaloratu egiten du bere garrantzia, puztu egiten ditu bere lorpen eta trebetasunak, handitasunezko fantasiak edo jokabideak ditu eta perfektua dela uste du. Bere perfekzio eta handitasun itxura mantentzeko gezurrak esaten ditu.

Harroa da eta bere itxura fisikoaz eta jantziez kezkatua agertzen da sarritan, bestelako itxura eman nahi duenean ere. Denbora eta energia asko eskaintzen dio besteen arreta erakartzeari. Izan ere, besteek zer iritzi duten berari buruz, miresten duten ala ez, horrek biziki kezkatzen du pertsona nartzisista.

Nartzisista egozentrikoa izaten da. Besteenganako inolako enpatiarik ez du agertzen. Haienganako sinpatia agertzen duenean, bere helburuak lortzeko izaten da. Bere premiek dute lehentasuna besteen premien gainetik eta ez du etsitzen bere helburuak lortu arte. Besteekiko gehiagotasun sentimenduak ditu. Besteak bere probetxuan ustiatzen ditu eta horretan inolako printzipiorik ez du agertzen: besteak ezagutzen saiatzen da, hobeto manipulatu ahal izateko. Bere familiako kideak ere ez dira horrentzat amets, sentimendu eta proiektu bereziak dituzten pertsonak. Besteak berarengatik sakrifikatzea normala iruditzen zaio, baina berak besteengatik beste horrenbeste egiteko premiarik ez du sentitzen. Mespretxua adierazten du bere bikotekidearekiko. Nar-

tzisistarekin harremanak dituen mendeko nortasuna duena izaten da sarritan (Millon eta Davis 1998, 2000). Nagusitasun-mendetasun dinamikaren barruan, rol osagarriak betetzen dituzte nartzisistak eta mendekoak.

Bakarra eta berezia dela, salbuespen dela, besteak ez bezalakoa dela edo besteek baino gehiago merezi duela uste izaten du nartzisistak: «Berezia naizenez, abantailak izateko eskubidea dut». Nartzisista pribilegiatua sentitzen da eta fabore espezialak merezi dituela pentsatzen du, trukean ezer eskaini gabe. Horregatik, haserretu egiten da espero dituen abantailak ematen ez zaizkionean. Arauak jende arruntarentzat jarri direla eta berari ezin dakizkiokeela aplikatu pentsatzen du, batez ere moralitate ahula duen nartzisistak. Adibidez, pertsona mota honek pentsa dezake ez lukeela besteek bezala ilaran zain egon behar. Salbuespentzat du bere burua eta arau sozialak hausten ditu. Ez zaio iruditzen pertsona arrunta denik eta jende ospetsuaren lagunartea bilatzen du.

Nartzisistak besteen onarpenaren eta mirespenaren behar handia du. Handinahia da, «Nobel Sariaren Konplexua» du (Tartakoff 1966). Pertsona nartzisistarekin harreman onak eduki nahi dituenak haren izaera eta lorpenengatik liluratua dagoela adierazi behar dio. Bere irudi puztua elikatzen dutenekiko lilura du. Solaskideen arreta-gune eta elkarrizketaren ardatz izatea gustatzen zaio eta zauritua sentitzen da bere balio handia ezagutzen ez dutenean. Beste guztiek berak duen ikuspegi bera izan behar dutela eta besteak bere desirak betetzeko daudela pentsatzen du. Besteen kritika jasotzean, amorrua, lotsa eta beherapena sentitzen ditu nartzisistak, baina sentimendu horiek gorde egiten ditu, axola ez zaiolako itxurak eginez. Horregatik, nartzisistaren harreman sozialak ez dira iraunkorrak izaten. Bere premiak asebeteko dituzten lagunak nahi izaten ditu.

Pertsona nartzisistaren ondoan dagoena hasieran liluratua gelditzen da haren handitasunagatik, baina laster ikusle soil izatera mugatzen da. Nartzisistak ezartzen dizkion sentimenduetatik at ezin du ezer sentitu. Laudorioen jokoan dabilen bitartean, liluragarri izatearen fantasia mantentzen du nartzisistarekin harremanean dagoenak. Baina, fantasia horrek porrot egiten du destainak hasten direnean.

Harreman afektiboetan, bere autoestimua indartzeko objektutzat hartzen du nartzisistak bikotekidea. Batzuetan aurpegi maitekorra, jarrera seduzitzailea, duintasun eta itxurakeriazko konfiantza ager ditzake nartzisistak, eta horrela hainbat pertsona erakarri eta atzipetu ditzake, edo konkista sexual asko egin ditzake, harreman sozialetako arauak batere errespetatu gabe, baina seduzitzaile itxuraren atzean besteez arduratzen ez den portaera, besteak eskrupulu gabe ustiatzen dituen gordetzen da.

Nartzisista konpentsatzaileak ahultasuna eta segurtasuna falta sentitzen ditu sakonean. Txikitako gabeziak eta barrengo hutsunea estaltzeko besteen

ezagutza bilatzen du, horretarako izugarrizko arrakasten berri eman behar badu ere. Lotsa sentitzera hel daiteke, oso sentibera baita besteen onarpen eta kritikarekiko. Sakonean badaki agertzen duena itxura hutsa dela.

Besteen arrakastei bekaitzez begiratzen die nartzisistak. Berak baino ondatsun gehiago eta arrakasta handiagoa dutenengana bekaizkeriazko sentimendu kronikoa agertzen du, eta besteak beraren bekaizti direla uste izaten du. Kontuz ibili behar da pertsona nartzisistari norbere lorpenen eta pribilegioen berri ematerakoan. Nartzisistak uste du besteek baino gehiago merezi duela, eta zuzengabekeria irudituko zaio besteek pribilegioak izan eta berak ez jasotzea.

Estilo kognitiboari dagokionez, nartzisistak joera nabarmena du bere burua besteekin alderatzeko; joera du bere burua handiago edo txikiago, indartsuago edo ahulago, bereziago edo arruntago, ederrago edo itsusiago, aberatsago edo txiroagotzat hartzeko. Informazioa prozesatzeko modu dikotomiko edo manikeoa du. Ez ditu erabiltzen ebaluazio-irizpide konplexuak. Bere gutxiagotasun sentimenduei aurre egiteko prestatua dago nartzisista.

Zergati-egozpenak egiteko estilo berezia erabiltzen du nartzisistak: barne faktoreei eta faktore iraunkorrei egotzen dizkie gertaera positiboak, eta kanpo faktoreei eta faktore iragankorrei, gertaera negatiboak (Ladd, Welsh, Vitulli, Labbe eta Law 1997).

Nartzisistak agertzen dituen pentsamendu automatikoak horrelakoak izaten dira: «Pertsona berezia naiz», «Goragoko mailako pertsona naiz eta besteen tratu berezia jasotzeko eskubidea dut», «Nire merituegatik besteen ezagutza, laudorioa eta mirespena jaso behar nituzke», «Besteen eginkizuna nire premiak asebetetzea da», «Beste pertsonak ez dute merezi jasotzen duten mirespenik eta aberastasunik», «Nire premiak besteen premien gainetik daude», «Ni bezain argiak direnek bakarrik ulertzen naute», «Gauza handiak itxaroteko arrazoi guztiak ditut».

Pertsona nartzisistak hasiera batean pertsona interesgarriaren itxura eman dezake, beren buruan duen konfiantzagatik. Entzulearen interesari entusiasmoz erantzun diezaioke hasieran, baina entzulea ez zaio interesatzen. Harremanen hasieran interesgarria badirudi ere, eta lehen kontaktua ezartzen ona bada ere, lagunekiko harremanetan porrot egiten du nartzisistak, interesatzen zaion gauza bakarra bere buruaz eta bere proiektuez hitz egitea baita. Ondorioz, afektibitateari dagokionez, ez da harreman intimoetarako gai, intimitateak botere ilusioa eta estatus diferentziak gaintitzea eskatzen baitu. Intimitatea ekidin egiten du, ezin baitu agertu beldurrik, tristurarik edo bereizgarri negatiborik.

Autoestimua altuaren itxurak ematen ditu, eta erreakzio emozional bortitzak (haserrea, amorrua) izaten ditu bere auto-irudia eraso dutela sentitzen duenean. Mihu egiten da norbaitek kritikatzeko duenean, eta amorru bizia

senti dezake kritikatu dutenen kontra. Nartzisistak badu besteak kritikatzeko eskubidea, baina besteek ez dute bera kritikatzeko eskubiderik. Kritiken ondorioz depresio-aldiak ere izan ditzake. Euforia eta handitasunezko fantasien ondoren depresioa, herstura eta sexu-inpotentzia agertzen dira sarritan nartzisistarengan. Porrotak, gaixotasuna eta zahartzaroa nekez eta gaizki jasaten ditu. Horregatik, nartzisista bati kritika egin behar dionak, haren jokaera konkretuak kritikatu behar ditu, eta ez ditu egin behar kritika orokorregiak. Gainera, kritikekin batera konplimenduak eta laudorioak ere egin behar zaizkio.

Nartzisistari iruditzen zaio bere trebetasun eta kualitate bereziengatik dela miretsia eta onartua, eta baztertua izango dela bereizgarri normalak agertzen dituenen. Arrakasta da kezkatzen duena, bai profesioaren bai maitasunaren arloan. Arrakastaren eta ospaeren fantasia handiak ditu. Bere buruaren irudi ideala edukita, irudi horrekin bat ez datozen datuak distortsionatu egiten ditu. Nartzisistak bere buruarekiko duen irudi puztua zauritzen bada, haren autoestimua jaitsi egiten da eta egonezina sortzen dio. Egoera hori gainditzeko drogak kontsumitzera jotzen du sarritan. Drogei esker erreala ez den mundu batean babesten da, eta boteretsu eta garrantzitsu senti daiteke berriro.

Baina, idealari jartzen zaion edozein mugak lausotu egiten du perfektioaren ideala eta hutsune sentimendua sorrarazten du nartzisistarengan. Nartzisistaren arrakasta-fantasiak haren bizitza afektibo urria gordetzen dute. Hala ere, arazoak dituztenik ez du onartu nahi izaten. Benetan dena ukatu egiten du eta bere buruaren irudi gainbaloratua miresten du. Sufritu izan dituen traumak eta tristurazko sentimenduak albora utzi eta berezia eta perfektua dela sinesten jarraitu nahi du. Baina, sakonean hor diraute gutxiagotasun sentimendu inkontzienteeak.

Horrela, nartzisistak sarritan txandakatzen ditu garrantzitsua delako sentipena eta duingabe delako sentipena. Espero duen onarpen maila lortzen ez badu, besteek hutsegileztat hartuko dutela uste izan lezake. Espero zuen arrakastaren aitortpena lortzen bada, berriz, bere lorpena iruzurra izan dela senti lezake, eta ez da gai izango bere benetako arrakasta gozatzeko. Autoestimua ahula agertzen du ia beti. Gauzak egiteko duen moduarekiko besteen iritziak kezkatuak agertzen da, besteen etengabeko begirune eta gorespenaren beharra baitu. Bizitza osoan ibil daiteke lausengu bila.

Kultura mota eta nartzisismoa

Maslowren hierarkiako goi-mailako beharren asebetetzearekin loturik dago nartzisismoa. Behe mailako premiak asebetek daudenean, autorrealiza-

zio bilaketa iragaten da lehen mailara. Bilaketa horrekin erlazionatuta dago Nortasun Nartzisistaren patologia. Nartzisismoaren arriskua are handiagoa da, norbere ongizatea azpimarratzen duten kultura indibidualistetan. Gizonezkoengan emakumeengan baino hedatuago dago (Rienzi, Forquera eta Hitchcock 1995), eta lanbide «errespetagarrietako» pertsonetan hedatuago, besteetan baino.

Beren buruan uste ona izateak gizartekoi bihurtzen du jendea, baina uste onegiak harro bihurtzen du. Estilo nartzisista duenak modu ez-errealistan goratzen ditu bere gaitasunak, eta konfiantza sentitzen du bere buruan, guztiahaltasuna baino gehiago. Baina, nortasun nartzisista duenak bere garrantziaren gehiegizko zentzua du, mugagabeko arrakasten fantasiarekin batera.

Mendebaldeko gaurko giro kulturalak banakoen identitatea, arrakasta eta edertasuna azpimarratzen ditu, taldeko identitatearen aurretik. Kultura kolektibistetan Niaren mugak iragazkorra dira, norberaren garapena taldeko beste kideen garapenari estuki lotua baitago. Mendebaldeko kultura indibidualistetako pertsonak beren buruarekiko estimu handia agertzen dute eta beren nartzisismoarentzat ezinbestekoak dira banakako lorpenak. Kultura kolektibistetan, berriz, norbere lorpenak taldearen sostenguari egozten zaizkio.

Maiztasuna

DSM-IV-TRaren (APA 2000) arabera, %1 baino gutxiagoko maiztasuna du nahaste nartzisistak populazio orokorrean, eta %2tik %16ra bitartekoa, populazio klinikoan. Zimmerman eta Coryllec (1990) %0,4ko maiztasuna aurkitu zuten populazio orokorrean. Nahaste hau dutenen %50-75 gizonezkoak dira, behar bada hauek premia handiagoa dutelako beren premiak asebetetzeko besteak bitarteko moduan erabiltzeko (Tschanz, Morf eta Turner 1998).

Badirudi gaur egun iraganean baino maiztasun gehiago duela Nortasuna Nartzisistaren Nahasteak, baina datu horrek zerikusia eduki dezake nahaste horri buruz gaur egun interes profesional handiagoa egotearekin.

Etiologia

Nartzisismoaren azterketa etiologikoa egitean, honako ikuspegi hauek hartzen ditugu kontuan: ikuspegi psikoanalitikoak, pertsonarteko ikuspegia, ikuspegi kognitiboa eta ikuspegi biopsikosozial ebolutiboa.

Ikuspegi psikoanalitikoak bulkada eta indar inkontziente eta kontzienteen arteko gatazka eta elkarreraginaren ondorio moduan aztertzen du gizakiaren portaera eta funtzionamendua eta ekarpen handia egin dio nartzisismoaren etiologiaren azterketari:

— Freuden (1914) arabera, bere buruarengan libido gehiegi inbertitzen du nartzisistak. Nartzisistari iruditzen zaio ni idealaren gauzatzea edo hezurmami-tzea dela, mundu guztiak miretsi beharreko existentzia bete bat bizi duela, besteen beharrik ez duela, besteen beharra izateak osoa eta bete ez izatea esan nahi duela.

Gurasoek haurra gehiegi baloratzetik etor daiteke nartzisismoa Freudentzat. Guraso batzuek Jainkoaren erregaliatzen hartzen dituzte beren haurrak. Horrelakoetan, haurrari perfekzio mota guztiak egozten dizkiote gurasoek, behaketa objektiboak egiaztatzen ez dituenak. Gurasoek kalitate mugagabeek hornituta ikusten dituzte beren haurrak, eta beren kalitateengatik maite dituztela sinestartzen diete. Haurra izaki perfektutzat hartzen dute eta onartua izateko ezer egin beharrik ez duela pentsatzen dute. Modu horretara ohitutako haurrak, besteak manipulatzeko ikasten du, haiengandik behar duen arreta lortzeko.

Nartzisismo primarioa eta sekundarioa bereizten zituen Freudek. Nartzisismo primarioa Nia eratu baino lehen gertatzen da eta kanpoko munduarekiko harremanik eza adierazten du. Amaren sabelean dagoen haurrak libido guztia beregan kokatua dauka. Nia eta Zera bereizi gabe dauka, ingurunearekin harremanik ez du eta amodio-objektu bakarra bere burua du; kanpoko objektuak aukeratu aurretik, eta libidoa kanpoko objektuetan jarri aurretik gertatzen da. Nartzisismo sekundarioan norbere Niarengana itzultzen da objektuetan kokatua zegoen libidoa; besteekin identifikatuz gertatzen den Niaren eraketa prozesuarekin lotua dago.

— Fenichel (1945): nartzisistak lorpenak behar ditu, bat bestearen atzetik, baina ez du benetako asebetetzerik lortzen. Lortu nahi duena sakoneko hutsune sentipena estaltzea da. Ez du bere benetako balioan sinesten eta eduki dezakeen arrakastak une batez bakarrik asebetetzen du.

— Stonerentzat (1993) nartzisismoa gerta daiteke, gurasoek haurrak gehiegi baloratu dituztelako edo gurasoak hurrez axolatu ez direlako. Lehen kasuan, egia dena baino hobetzat hartzen du bere burua haurrak. Bigarren kasuan, bere burua ez du baloratzen eta balio gabezia hori konpentsatzen saiatzen da.

Pertsonarteko ikuspegiak bere jatorrian erlazio handia eduki du harreman objektalen ikuspegi psikoanalitikoarekin, baina gerora pertsonarteko komunikazioan mezuaren igoerak eta mezuaren hartzaileak duten elkarreraginean zentratu da. Nartzisismoaren azterketan arreta handia jarri dute ikuspegi honetako autoreek:

— Karen Horney (1939): nartzisismoa norberaren goratzea da, halako «inflazio ekonomiko» baten antzekoa. Esate baterako, dituenak baino balio handiagoak egozten dizkiote gurasoek haurrari, eta ez dituen balio batzuetatik miresten dute edo maite dute. Edo haurrak gurasoen onarpena eta maitasuna espero ditu, ez dituen balio batzuetan oinarrituta. Norberarenganako amodio eta lilura moduan agertzen da, baina oinarri egokirik ez du. Nartzisisten proportzio handia seme bakarrek edo familiako seme zaharrenek osatzen dute (Akhtar 1989). Izan daiteke seme bakarrek edo lehen jaiok gurasoen barne-herstura gehiago jasan dutelako edo gurasoek errealak ez diren itxaropenak jarri dituztelako haiengan. Beren aspirazioak semearengan edo alabarengan proiektatzen dituzte gurasoek, eta seme-alabak ez dira sentitzen direnagatik maitatuak, gurasoen irudimenean dituzten kalitateengatik baizik.

Gurasoak denerako prest daude beren seme-alabengatik, eta hauek prestutasun bera espero dezakete beste pertsonengandik ere. Arreta hori merezi dutela pentsatzera hel daitezke. Besteak ustiatzen eta morroi edo neskametzat hartzen eta haiek manipulatzeko ikas dezakete.

— Kernberg (1975, 1984): nartzisismo normalean libidoa norberarengan inbertitzen da. Norbere burua libidoz kargatzeko, norberaren irudi positibo eta negatiboak integratu behar dira. Ni integratua libidoz kargatzen dator autoestimua. Baina, Ni integraturik ez dagoenean, Niaren egoera kontraesankorrak ateratzen dira, mugako nortasunetan gertatzen den moduan.

Norbere buruaren garapenaren prozesuan interferentzia larriak gertatzen agertzen da nartzisismo patologikoa. Haurra txikia zenean ez zuen jaso amaren erantzun enpatikorik. Nartzisisten amak ez dira afektiboki maitekorrak izaten, eta horrek haserrea sortzen du haurraren. Nartzisistak gabezia emozionala bizi izan du, ama beraz axolatu ez delako. Axolagabekeriako giro horretan, defentsa mekanismo nartzisistak garatzen ditu haurrak; amak baloratzen dituen alderdi batzuetan babesten da haurra; zerbait berezia izatearen ideia garatzen da haurraren, talentu bereziren batean oinarrituta. Nartzisistak, haurretan, talentu bereziren bat sarritan eduki du. Defentsa moduan, self patologiko puztu bat eraikitzen du, alderdi positibo guztiak biltzen dituen. Defentsa mota horrek ahultasun handia gordetzen du, autoirudi puztua lehertu baitaiteke. Objektuarekiko harremana ukitua gertatzen da: ez dago norberaren eta objektuaren arteko erlaziorik; dagoen harremana, norbera primitibo puztuaren eta berorrek objektuetan egiten duen proiektzioaren artekoa lotura sinbiotikoa da.

Nortasun Nartzisistaren Nahastearen hainbat bereizgarri deskribatu bada ere (Cain, Pincus eta Ansell 2008), bereizgarri horiek guztiak bi eredu hauetan laburbil daitezke: handitasunean oinarritutako nartzisismoa eta zaugarritasunean oinarritutakoa. Handitasunean oinarritutako nartzis-

moak handiustea, eskrupulurik eza, exhibizionismoa, berekoikeria, harrotasuna, fanatismoa edo besteak manipulatu nahia ager ditzake. Zaurgarritasunean oinarritutakoak masokismoa, herabetasuna, lotsa, bere buruarengan konfiantza falta edo gehiegi zelatatzea ager ditzake. Nartzisismoaren bigarren aurpegi hau da, adibidez, Kernbergekin azpimarratzen duena; DSM-IV-TRak, aldiz, handitasun alderdia azpimarratzen du.

Kernbergen iritziz, nartzisismoaren jatorrian guraso hotzak, axolagabeak eta erasokorrak aurkitu izan dira, gehienetan. Nartzisistaren Ni puztuaren atzean, besteen onarpenaren premia handia gordetzen da. Benetako Nia babesteko handitasun sentimendua garatzen du. Handitasun sentimendu horren atzean gordetzen da hauraren benetako Nia. Benetako Ni horrek bekaiz, beldur eta amorrutako sentimenduak bizi ditu. Azaleko emozioak eta empatia maila eskasa agertzen ditu. Besteak ustiatzen ditu. Alde horretatik, pertsonarteko esperientzietatik eratorritako errepresentazioak integratzen dituen identitatea da nartzisismoa. Zeinu positibo eta negatiboko esperientzia afektiboak bateratzen dituen egituraketa mentala. Nartzisistak ezin izan ditu integratu bere barne-munduan errepresentazio positiboak eta negatiboak. Maitasunaren eta gorrotoaren arteko gatazka handia bizi du.

Idealak eta debekuak integratuko dituen Superniaren eraketan porrota gertatzen da. Hausturen aurrean modu beldurgarrian jokatzeko duen Supernia agertzen da nartzisistarengan. Autoirudia eta Niaren ideala fusionatu eta handitasun edo gutziahaltasun sentimendua agertzen da. Beste ideala eta autoirudia fusionatu eta besteen onarpenaren premia agertzen da. Bera miresten eta gurtzen duen pertsona da beste ideala; munduaren erdigunea dela sinestarazten dio nartzisistari. Beste ideala eta norbera ideala nahasturik daude eta besteek ere perfektuak izan behar dute, norberak bezala. Perfektua ez den bestea mespretxatu egiten da. Haurrak haserrea eta erasokortasun ezkutua agertzen ditu maitasun baldintza gabea ematen ez dioten gurasoekiko. Handitasun sentimendua konpentsaziozkoa izaten denez, pertsona nartzisistak oso sentibera agertzen dira besteen kritikekiko.

Kasu batzuetan, gurasoek gehiegi babestu dute haurra, eta honek ez du ikasten frustrazio eta porrot egoerei aurre egiten. Gainera, pertsona berezia, bakarra eta ezin hobea dela sinistera hel liteke horrelako gurasoekin, edozein dela ere bere jokabidea.

— Kohut (1966, 1971): garapena gelditzearen edo garapenean atzerakada egitearen ondorena da nartzisismoa. Libidoaren garapena ez doa bereizi gabea den libidotik autoerotismora, hortik nartzisismora, eta nartzisismotik amodio objektalera. Ez dira behar moduan integratzen norbere buruaren handitasuna eta gurasoen irudi idealizatua. Bere handitasun sentimenduak edo gurasoen botere harrigarrien sentimenduak zapuztean, dezepzio horiek gaintu egin behar ditu. Baztertzek edo zapuzteak lehen estadioetan gerta-

tzen badira, mugako patologia edo patologia psikotikoak agertuko dira. Gerroagoko estadioetan gertatzen badira, zapuzteak norbere handitasuna uki dezake (nartzisismoa) edo gurasoen idealizazioa uki dezake (depresioa edo hustasun sentimendua).

Kohutek bi transferentzia mota bereizten ditu terapia analitikoan: idealizazioa eta ispilukoa. Lehenengoan, objektu guztiahaltzu bati atxikiz lortzen du subjektuak oreka. Bigarrenengan, norberatasuna sortzen da, norberarengan jartzen da boterea eta gutxietsi egiten dira besteak. Nartzisismo patologikoa noiz gertatzen da? Nortasunaren zati diren «norbera handia» eta «gurasoen irudi idealizatu» egoki integraturik ez daudenean. Norberaren garapena gelditu egiten da, haurraren txikitako ni puztuak helduaren pentsamenduak igurzten ditu. Garapenean gertatzen den geldialdi hau zeri zor zaio? Amak haurra emozionalki ez sendotu izanari edo haurrari bere mugak onartzen irakatsi ez izanari.

Lehen mailako nartzisismoaren garaian haurrak ez du bere buruaren izaera berezitua ezagutzen. Laster autokontzeptu puztua eta guztiahaltzua agertuko da, beste pertsona idealizatuarekin elkartuta. Beste horiek norberaren luzapen moduan hartzen dira, eta ez objektu diferentziatu moduan. Etapa hori gainditzeko, norberaren irudi integratua eta segurua eratu behar du, identifikazio edo barneratze egokien bidez. Barneratze horri esker kanpoko objektu independenteekin harremana eduki ahal izango du.

— Benjamin (1993): nartzisista oso sentikorra eta zaugarria da besteen kritikekiko; maitasun behar handia du eta baldintza gabeko maitasuna espero du. Txikia zenean bere eskaera guztiak ase dituzte gurasoek, eta handitzean, nahi duen guztia jasotzen jarraituko duela pentsatzen du, merezi duela iruditzen baitzaio. Familia normaletan, haurrak handitzen doazen neurrian, diziplina arauak jartzen dituzte gurasoek, eta diziplinaren bidez haurrak konturatzen dira beren ekintzek eragina dutela besteengan eta beste pertsonen ere beren premiak eta interesak dituztela. Baina, nartzisistaren gurasoek ez dute mugarik jartzen, eta ez diote haurrari ematen bere jokabideak gurasoengan duen eraginaren berri. Horrelako seinalerik gabe, haurrak egozentrismo nabarmena garatzen du, bestearekiko inolako kontsideraziorik ez duena. Gurasoek gehiegi miresten dute haurra eta hutsegiterik ez diote onartzen. Haurrak perfektua izan behar du eta perfektua delako maite dute gurasoek.

Ikuspegi kognitiboaren arabera, nartzisistak bere buruaz eta munduaz eske ma disfuntzionalak ditu. Eskema horiek ingurukoengandik jasotako mezuen bidez garatzen dira. Ingurukoengandik jasotako lausenguei eta onarpenari esker, berezia dela pentsatzen du nartzisistak, eta horregatik besteen mirespena eta begirunea espero ditu. Etorkizun idealizatu bat proiektatzen du nartzisistak, mugagabeko arrakastaren fantasian oinarrituta. Horrela, fantasiak

errealitateari gain hartzen dionean, guztiahaltasun sentimendua nagusitzen da nartzisistarengan. Berezia izatearen ustea etor liteke gabezia, bazterketa edo mugen esperientziatik ere. Esperientzia positibo edo negatiboengatik, besteengandik ezberdina sentitzen da, eta berezitasun hori gehiegizko emozio erreakzioekin elkartzen da. Adibidez, sarritan gertatu izan da amaren inguruko pertsona esanguratsu bat hiltzea eta haren tokia nartzisista izango den haurrak hartzea (ikus Salvador Dalíren kasua). Haur hori «berezia» izango dela pentsatzeko joera izaten du amak. Ongi ebatzi gabeko dolua dela eta, amak ez du bere funtzioa ongi betetzen (Volkan 1981). Beste batzuek garrantzi handiago eman diote aitaren absentiari edo gabeziari, eta aitak ama sostengatu ez izanari (Gagan, Cupoli eta Watkins 1984).

Ikuspegi biopsikosozial ebolutiboaren (Millon eta Davis 1998, 2000) arabera, gurasoek haurra gehiegi baloratu dutelako gertatzen da nartzisismoa. Gurasoek haurra gehiegi miresten dute eta haren balioa gehiegi puzten dute. Nartzisistak pasiboki jokatzten du sarritan eta ingurunera modu erosoan egokitzen saiatzen da, ingurune hori aktiboki aldatzen baino gehiago. Gurasoek gehiegi baloratu dute eta baldintza gabeko laudorioak eskaini dizkiote. Miretsia izateko den modukoa izatea nahikoa duela eta meritu berezirik egin beharrik ez duela pentsatzen du. Haurrak bere buruaren irudi puztu bat barneratu du, kanpoko errealitateak ematen duen feedbacka kontuan hartu gabe. Kanpoko ebaluazio negatibotik babestu egiten dute gurasoek haur nartzisista eta, ondorioz, nartzisistak kritikekiko gehiegizko sentiberatasuna agertzen du. Nartzisista ez dago lorpenak izatera motibatua, lorpenik gabe ere baloratua delako.

Diagnosi diferentziala

Nortasun Nartzisistaren Nahastea askotan agertzen da Mugako Nortasunaren Nahastearekin, Nortasun Histrionikoaren Nahastearekin, Nortasun Antisozialaren Nahastearekin edo Nortasun Paranoidearen Nahastearekin batera, eta kasu hauetan komorbilitateen diagnosiak ere egin behar dira.

Mugako Nortasunaren Nahastea dutenek eta Nortasun Nartzisista Nahastea dutenek (ikus 1. taula) ezinegon afektiboa eta pertsonarteko harremanen nahasteak dituzte. Inpulsibotasuna bietan agertzen da, baina modu ezberdinean. Identitate-nahastea, bere burua zauritzea, buru-hilketa saioak, hutsune sentimendua eta haserrea mugako nortasuna dutenengan agertzen dira, baina ez nartzisistengan. Aldiz, handitasun sentimenduak, harrokeria, bakarra edo berezia delako sentimendua eta mirespen-beharra nartzisistengan agertzen dira, baina ez Mugako Nortasunaren Nahastea dutenengan. Nortasun Nartzisistaren Nahastea duen subjektuak norberaren irudi egonkorragoa, kohe-

renteagoa eta positiboagoa azaltzen du mugako nahastea duenak baino, eta ez da agertzen haiek bezain oldarkor eta emotiboa.

1. taula

Nortasun Nartzisistaren Nahastearen eta Mugako Nortasunaren Nahastearen arteko berdintasunak eta ezberdintasuna

Nartzisistaren bereizgarriak	Nartzisista eta Mugakoaren bereizgarriak	Mugakoaren bereizgarriak
	Ezinegona eta inpulsiotasuna.	
Handitasun sentimenduak, harrokeria, bakarra edo berezia izatearen sentimendua eta mirespen-premia.		Identitate-nahastea, bere burua zauritzea, buruhilketa entseguak, hutsune sentimendua eta haserrea.

Nartzisista eta antisoziala (ikus 2. taula) egozentrikoak dira; beraz, besteek sentitzen dutenak ez die axola. Gizarte arauetikiko duten destainak elkarrekin egiten ditu nartzisista eta antisoziala. Biak baliatzen dira beste pertsonen baina Nortasun Nartzisistaren Nahastea duena ez da nahaste antisoziala duena bezain aktiboa eta oldarkorra. Nartzisista eguneroko tirabiren gainera sentitzen da, eta antisoziala etsaiez inguraturiko mundu batean murgildua sentitzen da.

Nartzisistaren jokabideak ez dira irabazi materialei loturiko sentimenduetatik eratorritzen, gaitasunei eta botereari loturiko sentimenduetatik baizik. Antisozialek Superbiaren gabezia handiagoa dute nartzisistek baino: ez dute erruduntasun sentimendurik eta lege-hauste gehiago egiten dituzte.

Pertsona bera nartzisista eta antisoziala denean, hau da, nartzisismoaren egozentrismoa, enpatiarik eza eta gehiagotasun sentimendua antisozialaren inpulsiotasunarekin eta jokabide erasokorrarekin batera doazenean, orduan psikopata batekin egiten dugu topo. Ukitu antisoziala duten nartzisistek nartzisistaren autokonfiantza eta antisozialaren jokabide okerra konbinatzen dituzte. Besteen konfiantza lortu ondoren, haiek ustiatzen eta mespretxatzen dituzte. Besteen ongizateak ez die axola. Legearen mugetan jokatzeko dute, debekuak ez baitituzte barneratu. Beren bulkadak asebetetzera doaz, inolako enpatiarik eta kontzientziako alhadurarik gabe.

Nartzisistarentzat, antisozialarentzat ez bezala, legeak ez dira txarrak eta zuzengabeak, baina besteek betetzeko eginak dira, ez norberak betetzeko. Nartzisistak bere promoziorako ustiatzen ditu besteak, egin behar dutena egiteko. Antisozialak bere probetxua bilatzen du.

2. taula

Nortasun Nartzisistaren Nahastearen eta nahaste antisozialaren arteko berdintasunak eta ezberdintasunak

Nartzisistaren bereizgarriak	Nartzisista eta antisozialaren bereizgarriak	Antisozialaren bereizgarriak
	Egozentrikoak dira; besteek sentitzen dutenak ez die axola. Gizarte araukiko destaina dute.	
Ez dira hain aktibo eta oldarkorrak.		Aktiboak eta oldarkorrak dira.
Eguneroko tirabiren gainetik sentitzen dira.		Etsaiez inguraturiko mundu batean murgilduak sentitzen dira.
Nartzisistaren jokabideak ez dira irabazi materialei loturiko sentimenduetatik eratortzen, gaitasunei eta botereari loturiko sentimenduetatik baizik.		Nartzisistek baino Super-niaren gabezia handiagoa dute: ez dute erruduntasunik eta lege-hauste gehiago egiten dituzte.
	Nartzisistaren egozentrismoa, enpatia gabezia eta gehiagotasun sentimendua + antisozialaren inplulsibotasuna eta jokabide erasokorra = Psikopatia.	
Nartzisistarentzat, antisozialarentzat ez bezala, legeak ez dira txarrak eta zuzengabeak, baina besteek betetzeko eginak dira, ez norberak betetzeko.		

Histrionikoak eta nartzisistak liluragarriak izaten eta beste pertsonen arreta-gune izaten saiatzen dira. Histrionikoak bere barneko hutsune sentipena bete nahi izaten du besteen arreta erakarriz. Nartzisistak ere barne-hutsunea bete nahi izaten du, bere buruaren irudi puztua erabiliz. Nartzisistak besteekin harreman gutxiago du eta besteekiko mendekotasun txikiagoa du; beraz, ez ditu Nortasun Histrionikoaren Nahastea jasaten duenak adina puzten bere emozioak. Histrionikoa gizartekoiagoa eta maitekorragoa da; nartzisista, hartzagoa, burutsuagoa eta bereziagoa da eta ez du emozioen gehiegizko erakustaldirik egiten, histrionikoak egin ohi duen moduan.

Nartzisistaren eta paranoidearen artean ere bada kidetasunik. Biak ikusten ditugu kezka beteak. Nartzisistak pentsamendu paranoideak izaten ditu, besteak bere talentu berezien kontra daudela uste izaten baitu. Bere handitasun fantasien kontra doan informazioak haserre bizia sortzen dio, eta bere autoestimua zauritzen duten pertsoneri eraso egiten die. Nartzisista kezkatua dago, mugagabeko arrakasta lortu nahi duelako eta bere lurralde-mugak zaindu nahi dituelako. Alde horretatik, nartzisistak besteak erakarri egiten ditu, bere liluraren bidez; aldiz, paranoideak besteak uxatu egiten ditu, bere mesfidantzagatik. Nartzisista hotza eta pausatua da; paranoidea, berriz, haserrekorra da. Nartzisistak porrot egiten duenean eta bere autoestimu puztua zultzen denean, errua besteei egozteko joera izaten du eta etsaiez betetako ingurumenaren kontra defendatzen hasten da. Besteak bere distira ezabatzen saiatzen ari direla uste izaten du.

Nortasun Obsesibo-Konpulsiboaren Nahastea duenari eta Nartzisistari kostatu egiten zaie eginkizunak besteen eskuetan uztea, perfekzionistak direlako, baina obsesibo konpulsiboak autokritikoagoa eta autoexigenteagoa izan ohi da nartzisista baino.

DSM-IV-TRaren I. ardatzeko nahasteekin batera sarritan gertatzen da Nortasun Nartzisistaren Nahastea. Horrela, porrot egiten duenean, bere buruarengan konfiantza galtzen du nartzisistak eta depresioan murgil daiteke, denbora laburrez bada ere. Era berean, herstura-aldi laburrak izan ditzake, nahiz eta ez zaion batere gustatzen estu dabilela agertzea. Nahaste hipokondriakoak ere ager ditzake, libidoa errepresentazio objektaletatik errepresentazio somatikoe-tara pasatzen denean. Nahaste paranoidea ere ager dezake, eta horrela bizi izandako porrotak arrazionalizatuko ditu.

Nortasun Nartzisistaren Nahastea diagnostikatzeko erabiltzen diren DSM-IV-TRko (APA 2000) irizpideak aurkezten ditugu 3. Taulan:

3. taula

Nortasun Nartzisistaren Nahastea diagnostikatzeko DSM-IV-TRak erabiltzen dituen irizpidea

DSM-IV-TR

Bere buruaren irudi handi-mandia agertzen du sarritan (irudimenean edo jokabidean), besteak liluratu beharra eta enpatia gabezia. Bereizgarri horiek helduaro goiztiarrean hasten dira eta egoera anitzetan agertzen dira. Item hauetako bost edo gehiago agertu behar ditu (DSM-IV-TR, American Psychiatric Association 2000):

- Beren buruaren irudi puztua du (lorpenak eta talentuak puztu egiten ditu adibidez, eta pertsona gailen moduan ezagutua izatea nahi du, horretarako beharrezkoak diren lorpenik ez badu ere).
- Mugagabeko arrakasta, botere, distira, edertasun eta irudimenezko amodioen fantasiaz kezkatzen da.

- Berezia eta bakarra dela, bereziak direnek bakarrik uler dezaketela, edo bereziak nahiz goi-mailakoak diren pertsonekin edo erakundeekin bakarrik eduki ditzakeela harremanak uste du.
- Gehiegizko lilura sortu beharra du.
- Asmo handiegiak ditu. Tratamendu berezia jasotzeko arrazoirik gabeko igurikimenak ditu, edo bere igurikimenak automatikoki beteko direla uste du.
- Pertsonartean ustiatzailea da: bere helburuak lortzeko besteengandik ateratzen du etekina.
- Enpatiarik ez du: besteen sentimenduekin eta premiekin identifikatzeko zailtasunak ditu.
- Besteen bekaizti da sarritan edo besteak beraren bekaizti direla uste du.
- Jokabide edo jarrera harroak edo menderatzaileak agertzen ditu.

Munduko Osasun Elkartearen CIE-10eko (OMS 1992) Nortasun Nartzisistaren Nahastearen irizpideak Amerikako Elkarte Psikiatrikoaren DSM-IV-TReko irizpide berak dira, baina CIE-10ak ez du Nortasun Nartzisistaren Nahasteen nortasunaren nahasteen artean sailkatzen; «Nortasunaren beste nahaste espezifikoak» taldean sartzen du. Talde horretan nortasunaren nahaste espezifikoen irizpideak betetzen ez dituzten nahasteak sartzen dira.

Nortasun Nartzisistaren Nahastearen bereizgarriak dituen artista: Salvador Dalí

Bere koadro surrealistentatik da ezaguna Salvador Dalí Doménech, baina argazkia, zinea, eskultura eta literatura ere landu zituen. Figueresen (Gironan) jaio zen 1904an, bere anaia hil eta handik 9 hilabetera. Aita ideologiaz liberala eta ogibidez notarioa zuen. Ama, berriz, katoliko elizkoia, seme-alabei oso emana, haiengatik edozer egiteko prest zegoena.

Salvador Dalíren anaia zaharra 1901ean jaio eta 1903an hil zen. Hildako anaiak utzitako hutsunea betetzeko etorri zen Dalí eta anaiaren izen bera jarri zioten: Salvador. Bi anaiak antz handia zuten. Bost urte zituela anaiaren hilotza eraman eta haren berraragiztatzea zela esan zioten. Bizitza guztian iruditu zitzaion hildako anaiaren kopia zela, nortasun bikia zeukala eta bi Dalí zeudela beregan. Arreba bat ere eduki zuen (Anna Mari), bera baino hiru urte gazteagoa.

Gurasoek laztanez inguratu zuten eta gehiegi babestu zuten Salvador. Nahi zuen guztia egiten uzten zioten. Esate baterako, edozein tokitan egiten zuen kaka, horregatik errietarik jaso gabe. Munduaren erdigune izaten uzten zioten beti eta izaera nartzisista bereganatzen joan zen. Gurasoek ematen ez

zioten afektuaren hutsunea bere buruari zion maitasunak bete zuen. Nartzisoren mitoa bere identitate bikoitzari edo paranoikoari lotua zegoen.

Sei urte zituenean sukaldari («cocinera») nahi omen zuen izan. Zazpi urte-ekin Napoleon izan nahi zuen eta jolasetan errege jantzita ibiltzea gustatzen zitzaion. Bizitza guztian izan zuen nartzisismorako eta megalomaniarako joera. Amaren aldetiko amonak, hil baino ordubete lehenago, ohetik jaiki eta esan omen zuen: «nire biloba pintore katalan handiena izango da».

Hamabi urte zituela Ramon Pichot artistaren familia ezagutu zuen Cadaquesen, eta familia horren aholkuz, pintura-klase batzuetara bidali zuen aitak Salvador. Hamabi urte zituela aurkitu zituen inpresionista frantsesak eta hamalau urterako kubista zen. Adin horretan bertako artisten erakusketa kolektibo bat egin zuten Figueresen eta beste erakusketa bat Bartzelonan. Bartzelonakoan sari bat irabazi zuen Dalík.

Hamabost urte zituela aldizkari batean ilustrazioak, poesiak eta pintoreei buruzko artikulua egin zituen. Hamasei urte zituela hil zitzaion ama, bularreko minbiziak jota. Amaren heriotza izan zen bizitzan jaso zuen kolperik bortitzena. Ama hiltzean, haren ahizparekin ezkondu zen aita, eta Salvadorrek ez zuen gaizki hartu, izeba maite zuelako.

1922an Madrileko Arte Ederren San Fernando Akademian sartu zen eta han egin zituen lagun Lorca eta Buñuel. Jantzera bitxia erabiltzen zuen: gorbata, polainak, kapa edo gabardina luzea, patillak eta ile luzea. 1923an urtebeterako ikastetxetik bota zuten, irakasle baten kontrako manifestaldi batzuetan parte hartzeagatik. Urte horretan espetxean ere egon zen, katalanista eta komunista izateagatik, dirudienez. Espetxetik irteteen harrera ona izan zuen: alde batetik, aitak grabatueterako prentsa bat erregalatu zion eta, beste aldetik, bere lagun Lorcaren bisita jaso zuen.

1924an liburu bat ilustratu zuen lehenengo aldiz. 1926an akademiatik bota zuten, azken azterketak egin baino lehentxeago, irakasleek berari azterketa egiteko gaitasunik ez zutela esan baitzuen. Pinturan Zurbaran, Vermeer, Rafael eta Velázquezen eragina jaso zuen, eta Velázquezen antzeko mostatxoak utzi zuen.

Garai horretan pintatu zuen «Ogiaren oterra», eta laster Pariserako lehen bidaia egin zuen. Parisen ezagutu zuen Picasso eta bertan elkartu zen André Bretonen talde surrealistarekin. Erakusketak egiten hasi zen eta metodo paranoiko-kritikoa asmatu zuen. Metodo horren bidez subkontzientera sartu eta energia artistiko sortzaileak liberatzen zituen. Ez zituen irudiak eta pentsamenduak kontrolik gabe jariatzeko uzten, baizik bere ekoizpenak aktiboki sortzen zituen. Arau bakarra hau zen: azalpen arrazional, kultural edo psikologikoa zuen ideia edo irudi bakar bat ere ez zuten onartu behar. Irudi bitxi eta harrigarriak bakarrik onartu behar zituzten.

1929an Buñuelekin batera «Zakur andaluz» film surrealista egin zuen. Urte horretan ezagutu zuen bere musa izango zena: Gala. Gala etorkin errusiarra zen eta bere jatorrizko izena Elena Ivanovna Diakonova zen. Dalí baino 11 urte zaharragoa zen eta Paul Éluard poeta frantsesarekin ezkondua zegoen. Galak Dalíren haurtzaroko ametsetako emakumearen irudia hezurmamitzen zuen, Dalík Galutchka izen mitikoz izendatu zuena. Galak adoptatu egin zuela, haren seme jaio berria izan zela, bere babeslea, ama eta erregina izan zela esaten zuen Dalík. «Nire txikitxo hori, inoiz ez gara bereiziko» esan omen zion Galak, eta une horretan bere bikia, bere Nia bihurtu omen zen (Dalí 1975).

Salvador Dalík krisialdi bortitza izan zuen 1929an eta barre hysterikoaren erasoak jasaten hasi zen. Harremanen hasieran, Galarekin hitz egin behar zuen bakoitzean asaldu egiten zen. Baina, poliki-poliki bere sintoma hysterikoak desagertzen joan ziren. Galari atxiki zitzaion eta lotura fusional horrek zorotasunaren leizetik libratu zuen. Gala izan zen Dalíren Gradiva. Gradivak Jensenen nobelako protagonista psikologikoki sendatu zuen moduan, Galak Dalí zorotasunetik babestu zuen. Dalík dio Galak sendatu zuela bere amodioaren indarrarekin, pentsamenduaren sakontasunarekin eta metodo psikoanalitikorik onenak baino gaitasun praktiko handiagoarekin.

Dalíren aitak ez zuen nahi bere semeak Galarekin harremanean jarraitzerik eta artista surrealistekin harremanak edukitzerik. Horregatik, Galarekin harremanean jarraitzeagatik eta bere amaren erretratuari txistua botatzen zio-la estanpa batean idazteagatik, etxetik bota eta herentziarik gabe utzi zuen.

Salvadorrek Galarekin harreman sexualik ez zuela eduki dirudi. Identitate krisi gogorra bizi izan zuen, Aitaren Izenaren muga edo Ordena Sinbolikoaren legea falta baitzitzaion harreman sexual normalak edukitzeko. Amarekin lotura sinbiotikoa bizi izan zuen; bere anaia hilarekin bikote nartzisiko bat osatu izan zuen beti; inoiz ez zuen jakin ispiluan bere burua ala anaia ikusten zuen; bere etxean inoiz ez zen Aitaren Legea ezarri eta ama beti bere esanetara eduki zuen, bere desirak eta premiak asebetetzeko prest; ez zen bere etxean triangelu sinbolikorik eratu; hizkuntzaren bitartekotzaren beharrik ezean, harreman zuzena zuen bere amarekin. Hizkuntzaren munduan adierazleak eta adieraziak edo esanahiak marra batez bereiziak daude, eta adierazleen sarean integraztean, gabezia eramaten ikasten du haurrak eta subjektu moduan eratzen da. Errepresentazioan objektu errepresentatua galdu egiten da; psikismoaren hasierako hutsune horren gain antolatzen da errepresentazio inkontzienteen sarea. Dalíri ere adierazleen sare horretan sartu eta Aitaren Legea onartzea beharrezkoa zitzaion bere identitate bereizia garatzeko. Izan ere, Galarekin zuen harremana sinbiotikoa eta fusiozkoa zen, hots, bien Niek inolako bitartekaririk gabeko harremana zuten. Dalíren etxean inoiz ez zuten onartu desagertutako anaiak utzitako hutsunea. Salvador etorri zen hark utzitako hutsunea betetzera eta inoiz ez zuen jakin bere identitate propioa zein zen, beti

anaiaren tokia betetzen egon baitzen. Gurasoek beti zalantzan jarri zuten bere identitatea, eta berak ere bai. Bere burua gorai patuz eta maitatuz, ezabamendutik askatzea lortu zuen. Anaiak utzitako hutsunea nartzisismoz bete zuen. Bere etxean bi estatu-buru zeudela zioen Dalík: Gala eta Salvador; bi horiek bakarrik arindu edo indartu zezaketen Salvadorren zorotasuna. Ondorioz, ulertzen da batzuetan bere obrak Gala-Dalí moduan sinatzea eta beste batzuetan Gala moduan sinatzea.

1931n pintatu zuen «Oroitzapenaren iraunkortasuna (Erloju bigunak)» izeneko koadroa eta bertan denboraren zurruntasuna baztertzen zuen. Izugarrizko arrakasta eduki zuen koadro horrek, amerikarrak etengabe erlojuari begira baitaude, eta beren erlojuak, Dalíren koadrokoak ez bezala, guztiz zurrunk, gogorrak eta mekanikoak baitira.

Estatu Batuetara joan zen 1934an. Urte horretan egin zuen New Yorkeko lehen erakusketa eta harrabots handia atera zuen. Mozorro-dantza batean ere hartu zuten parte Galak eta Dalík eta bertan Lindbergh haurraren eta haren bahitzailearen mozorroak erabili zituzten. Ondorioz, eskandalu izugarria sortu zuten eta prentsaren aurrean desenkusatu egin behar izan zuen Dalík.

Surrealistak ezkertiarak ziren gehien batean, eta Dalíren jarrera anbibalentea zela iruditzen zitzairen. Besteak beste, iruditzen zitzairen Hitlerren mugimenduaren aurpegi berritzaile eta irrazionala defendatzen zuela Dalík. Hain zuzen ere, Dalík ez zuen Hitlerren erregimena publikoki salatu nahi izan, eliteak eta hierarkiak defendatzen zituzten erregimenen alde zegoen, eliza katolikoa defendatzen zuen, «arkitektura perfektua» iruditzen zitzaiolako, eta, ondorioz, 1934an mugimendutik jaurtiki egin zuten surrealistek, faxismoekin ondo konpontzeagatik, katolizismora hurbiltzeagatik eta diruzalekeriagatik. Dalík, jaurtiketa horri honela ihardetsi zion: Hitlerrekiko zuen obsesioa paranoikoa hutsa zen, ez zen politikoa; bestalde, inpresionista bakarra Monet izan zen moduan, surrealista bakarra bera zela esaten zuen: «Ni naiz surrealismoa». Gainera, Dalí ez zen inoiz antisemita izan. Lagun juduak eduki zituen eta miresten zituen Freud eta Einstein. Bestalde, surrealistek ere positiboki baloratzen dute Dalíren metodo paranoiko-kritikoa, irrazionalitatearen irudiak zehaztasun osoz agertzen dituen. Hain zuzen ere, metodo paranoiko-kritikoa eldarniozko gertakarien elkartze interpretatzaile-kritikoan oinarritzen da. 1936an erakusketa surrealista batean esku-hartu zuen Dalík Londresen.

Dalík hainbat objektu artistiko egiten ditu: manikiak, altzariak, ogiak, besaulkiak, era guztietako kapeluak, txaketa afrodisiakoak, idazmahai antropomorfikoa, irudi bikoitzak, irudi hirukoitzak.

Madriilen ikasle zela irakurri zuen Dalík Freuden «Ametsen interpretazioa», eta Austriara joan zenetan Freud ikusten saiatu arren, 1938 urtera bitar-

tean ez zuen pertsonalki ezagutu Freud, mugimendu surrealisten inspira-tzailea. Dalík «Nartzisoren metamorfosia» izeneko koadroa erakutsi zion eta Freuden erretratu sintetiko bat egin zuen. Topaketa horri buruz honela idatzi zuen Freudek: «Ordura arte surrealista zoro batzuk iruditzen zitzaizkidan, ehunetik ehunean (...). Espainiar gazte honek, bere fanatiko-begi tolesgabe horiekin eta ukazinezko bere maisutasun teknikoarekin, iritzi hori berkon-sideratzera eraman nau» (Dalí 1975).

1940an Estatu Batuetara joan ziren Gala eta Dalí eta han zortzi urtez bizi izan ziren. Urte horietan ingelesera itzultitako idazlan klasikoan ilustrazioak, marrazki bizidunen filmak eta filmetako dekoratuak ere egin zituen. Nobela bat ere idatzi zuen 1944an. 1949an Kataluniara itzuli zenean, Francok nahiko erraztasun eman zizkion, bere aldeko jarrera hartu baitzuen Dalík. Franco zo- riondu egin zuen «indar ezabatzaileetatik» Espainia askatzearren. Francoren ilobaren koadro bat ere egin zuen.

1955ean hitzaldi bat ematera joan zen Sorbonako Unibertsitatera, azalo- rez betetako Rolls Royce batean. 1959an «surrealismoari omenaldia» izeneko erakusketa antolatu zuen Bretonek, eta Dalíren koadroak ere jarri zituen ber- tan. 1968an eta 1969an telebistako iragarki eta logo batzuk egin zituen eta «anarko-monarkiko» moduan definitu zuen bere burua.

1980an okerrera egin zuen Dalíren osasunak. Parkinson gaixotasunak jo zuen eta haren eskuek dardara handia egiten zuten. Gala 1982an hil zen, eta Dalí bizitzeko gogorik gabe geratu zen. Figueretik Puboleko gaztelura joan zen bizitzera, han sute bat izan zen arte. Berriro Figueresera itzuli zen. 1988an bihotzekoa izan zuen eta 1989an hil zen, 84 urterekin. Testamenduan Espai- niako Estatuari utzi zion bere ondarearen zati handi bat.

Errealitatea eraldatzeko metodo moduan paranoiak zuen boterea aztertu zuen Dalík. Bretonen automatismo psikikoaren orde zentsamendu para- noikoa erabiltzen hasi zen. Hasierako surrealisten idazketa automatikotik al- dendu eta eldarnioak lantzeko borondate aktiboari heldu zion Dalík. Pentsamendu paranoikoaren adibide moduan irudi bikoitza hartu zuen: objektuaren errepresentazioa dena eta, aldi berean, inolako aldaketarik gabe, objektu ezberdin baten errepresentazioa dena. Gizakiek etengabe interpreta- tzen dutenez, Dalírentzat paranoia ere giza psikismoaren osagai normala da. Desirarekin elkartua dagoen pentsamendu paranoikoaren bidez, besterentzen gaituen itxurazko errealitate materiala edo objektiboa eraldatu egin behar da.

Metodo paranoiko-kritikoa 1932an asmatu zuen. Metodo honen bidez modu sortzailean bidera ditzake berari erasotzen dioen hautemate arrisku- tsuak. Eldarniozko materialen sistematizazio zorrotz bat egiten du, bere ideia obsesiboak sortzaile bihurtzeko. Sormen artistikoari esker oreka eta egonkor- tasun psikikoa lortzen du.

Salvador Dalíren aitaren aldetiko aitona (Gal Josep Salvador Dalí) paranoia jasan zuen eta bere buruaz beste egin zuen. Aitaren anaia Rafael ere bere buruaz beste egiten saiatu zen. Zorotasunak sortzen duen herstura jaso zuen Salvadorrek bere arbasoengandik. Baina, garrantzi gehiago izan zuen haren patologiaren sorreran anaiaren heriotzak. Dalík bere anaiaren heriotzaren data aldatu egin zuen, bera jaio baino hiru urte lehenago hil zela anaia esaten baitu; baina, egiaz, bera jaio baino bederatzi hilabete eta hamar egun lehenago hil zen. Badirudi, beraz, anaiaren heriotza eta bere jaiotza urrundu egin nahi lituzkeela Salvadorrek.

Haur bat ongi garatuko bada, desiratua behar du izan: bestearengan espazio huts bat aurkitu behar du, besteak desiratu egin behar du. Salvador Dalí, berriz, dolu bete-betean ernaldu zuten gurasoek, anaiaren argazkia oheburuan zeukatela. Gainera, Salvador izena zuten anaia hilak eta aitona suizidatuak. Gurasoek ez zuten haur berri bat nahi, lehengoaren bikoitza baizik. Bikoiztua jaio zen Dalí eta bere tokia hartzeko gurasoek miretsi izan zuten anaia hura behin eta berriro erail beharra izan zuen.

Salvadorrek anaia bere bikoitza bezala bizi izan zuen, eta haren irudiaren aurrean sarritan despertsonalizatua sentitzen zen. Despertsonalizazio hori jasateko beldurretik askatu zuen pinturak. Bizi izaten zituen irudiak zehazki erreproduzitzen hasi zen. Errealitate materiala edo objektiboa baino benetakoa zen ametsetako eta zorotasuneko errealitatea.

Ispilu aroan eratzen den ispiluko irudiaren eta hark gordetzen duen *a* objektuaren artean aldea dago. Irudiak ezin badu ezkutatu, *a* objektua agertu egiten da. Kasu honetan anaia hilaren gorputz zatikatua da *a* objektua. Etengabe saiatu zen Salvador Dalí bere anaia ezabatzeko eta bere irudia indartzen, erreala denaren alderdi jasanezinari ihes egiteko. Baina, bitartekotza sinbolikoa falta zitzaion. Amaren eta anaiaren irudiari lotua jarraitu zuen Salvadorrek eta ez zuen behar besteko autonomiarik lortu. Adierazleak eta adieraziak (esanahiak), errepresentazioak eta afektuak bereizten dituzten zeinuen sarean ez zen sartu Salvador eta bere afektua irudimenezko harremanetan harrapatua gelditu zen, hutsune sinbolikoaren bertigoa eraman ezinez.

Osagai sinbolikoak irudimenaren erregistroari edo gorputz irudiari oreka edo egonkortasuna ematen dio, errealaren denaren alderdia ezkututzen du eta gorputz zatikatuaren itzulera galarazten du. Niak eta fantasmak errealaren kontrako defentsa moduan jokatzen dute. Salvador Dalíren kasuan, Lacanek deskribatzen duen irentzerik edo zikiratzerik ez da gertatzen, aita ez da amaren eta Salvadorren artean sartzen. Aitaren funtzio sinbolikoa forkluitua dago, hau da, pertsonaren unibertso sinbolikotik kanpora jaurtikia dago; ez dago inkontzientean txertatua, eta haluzinazio moduan itzultzen da subjektuaren alderdi errealean.

Dalík bere hildako anaia ordezkatu zuen eta inoiz ez zen izan bere ama osatuko zuen faloa. Amaren desira asebeteko zuen faloa baino gehiago amaren gozamenerako objektua izan zen, eta objektu moduan irentsia izan zitekeen. Horrela, ama mehatxugile eta arriskutsu bihurtu zen berarentzat: amak irentsiko zuen beldurrez bizi izan zen. Bestearen irenste desira mugatuko zuen objekturik ez zuen aurkitu, aitaren izenaren adierazlea falta baitzen. Salvador beti amaren gatibu izan zen, haren gozamenak harrapatua, haren gozamenaren objektu.

«Milleten Angelusaren mito tragikoa» koadroko pertsonaiak ama faliko irenste eta aita despertsonalizatu moduan interpretatzen ditu Dalík. Amak bere desiran ez die sarrerarik ematen aitari eta legeari. Aita zikiratzen du eta haurra bere gozamenaren objektu bihurtzen du. Aita eta haurra ahulak agertzen dira, ama indartsuaren alboan. Amaren eta haurraren arteko amodiozko kanibalismoa Aitaren Izenaren esanahiak mugatu beharko luke. Baina aitaren absentsiak ondorio bat dakar: amak bere semea irentsi eta heriotzara eramaten du. Haurra amak erailtzen du. Angelusaren koadroan, amaren oinetan haurraren hilkutxa ikusten du Dalík.

Angelusean emakumearen irudi handiak gizonarena irensten du. Koadro honek marisorginaren (*Mantis religiosa*) estaltze-topaketa gogorarazten dio Salvadorri: emeak irentsi egiten du bera estaltzen duen arra, espezie moduan iraurarazten badio ere. Horrela, asebate gabeko amak semea hartzen du bere gozamenerako, senarraren tokian.

Dalík muga garbiak zituen sexualitatearen arloan: sexualki anbiguoak ziren pertsonak eta masturbazioa maite zituen. Koitoa gauza basati bezala ikusten zuen eta bere buruari ez zion gaitasunik ikusten ekintza tragiko hori aurrera eramateko. Salvadorrentzat heriotza eta ezabamendua zekartzan koitoak; faloaren babesik gabe amarekin topo eginez gero, subjektu moduan ezabatu egingo zen. Faloa da, beraz, Bestearen desirari mugak jartzen dizkiona. Amarekin bakarka egoteko bereizgarri falikoaren babes behar zuen, bestela subjektu moduan ezabatua geratuko zen.

Dalík dioenez, bere koadroetan agertzen diren osagai gehienek haurtzaroko oroitzapen edo fantasietan dituzte sustraiak:

- Aho aroko osagaiak edo osagai kanibalistikoak: amodio ekintza moduan bere emaztea jatea; emaztearen ordezeko moduan txuletak erabiltzea.
- Salvadorrek bere burua onanista moduan jartzen du, «Masturbatzaile handia» koadroan; amodioa bere buruan amaitzen da.
- Uzki aroaren ezaugarriak: hondakinak gordetzea edo dirua pilatzeko joera («Avida Dollars» deitzen zuen Bretonek, «Salvador Dalí» izen-dei-

turetako letren konbinazio berri bat eginez): uzki aroan eta aro falikoaren hasieran finkatu zen Dalí (Valdivieso 1992).

Salvadorrek paranoiari esker bete zuen anaiak utzitako hutsunea. Afekturik ematen ez ziotenez, bere buruari zion maitasunaz bete zuen. Harrotasun eta nartzisismoz irabazi zion heriotzari. Nartzisoren mitoari esker bere identitate bikoitzaren edo paranoikoaren ideia garatu zuen («Nartzisoren metamorfosia», 1937). Nartzisismoan, ispiluko irudi bikoitzari esker identitatea eta alteritatea kontrasta daitezke. Baina, Dalíren nartzisismoa ez zen behar bezala eraiki. Bi nortasun zeuden Dalírengan eta irudi bikoitzen teknikaren bidez adierazten zuen hori. Bestearen heriotzaren gain bizirauten zuen Dalík: anaia-aren heriotza, Lorcaren heriotza: «Hildakoek sostengatzen dute nire bizitza, arkitrabeek bezala» (1975). Dalík Bestearekiko etsaitasunaren eta bere heriotzaren arteko borroka bizi zuen: bestea etsaia zuen, baina aldi berean, bere irudiaren proiektzioa zen; besteari erasotzean, bere buruari erasotzen zion eta horrek egoera malenkoniatsura eramaten zuen, objektua bere gainera erori eta bera ezabatzen zuelako.

Neurotikoarengan identifikatu egiten dira pertsona eraikitzailea eta pertsona eraikia; baina, psikotikoarengan, pertsonaia eraikiak menderatzen du pertsona eraikitzailea; horrela, eraikuntzaren erreferentziak galtzen ditu.

Dalík «paranoiko handitzat» zeukan bere burua, bere fantasmek sortutako munduan bizi baitzen; esanahi sinbolikoa duen errealtatea sortzen zuen eta errealtate horrek bere eldarnioak islatzen zituen. Hain zuzen ere, Lacanentzat eta Dalírentzat paranoia hasieratik sistematizatua dagoen eldarnio bat da; hasieratik kristalizatua eta esanahi sinbolikoarekin agertzen da. Dalík ez zituen jarraitzen bere psike inkontzientearen esanak, baizik bere arrazoia-aren bidez menderatzen zituen fantasma eta proiektzio irrazionalak. Dalíren metodo paranoiko-kritikoa urrundu egiten da kontrolatu gabeko ametsen pasibitate eta ekoizpen automatikoetatik.

Galak eman zion egonkortasuna eta eragotzi zion mugagabeko zorotasunean murgiltzea. Dalík zioen, «zoro baten eta beraren arteko diferentzia bakarra honetan zetzala: bera ez zegoela zoratua». Zoro baten eta beraren arteko berdintasuna, berriz, honetan zetzan: bera ere zoroa zela. Dalík garbi bereizten zituen, Galaren sostenguari esker, zoro izatea eta zoro egotea.

Dalík, bere haurtzaroaz hitz egitean, etxeko monarka bakar moduan jartzen zuen bere burua. Gurasoek miresten zuten haur mimatua eta perbertso-polimorfoa zen. Badirudi Dalík ez zuela harreman sexual normalik eduki Galarekin; onanista eta voyeurra zen, eta amatzat, babesletzat edo erreginatzat zeukan Gala.

Salvador Dalíren arreba Anna Mariarentzat Salvadorrek «Bizitza sekretuan» esaten zituenak ez ziren egia. Horregatik idatzi zuen «Salvador Dalí,

bere arrebak ikusita» izeneko liburua. Anna Mariarentzat Dalí pertsona oso ona izan zen surrealismoa ezagutu bitartean. Surrealismoaren atzaparretan erori zenean, faltsu bihurtu zen eta itxurarako bakarrik bizi izan zen.

Kasketaldi handiak harrapatzen zituen Salvadorrek haurra zenean, berak nahi zuena lortzen ez bazuen. Oso egoskorra zela Salvador esaten du Anna Mariak. Haur mimatua izan zen Salvador eta haserrealdien bidez nahi zuena lortzen zuen. Amaren besoetan lo hartzen zuen, baina ohean uztean berriro esnatu eta amaren besoetan jarraitu behar izaten zuen.

Anna Mariaren arabera, gauzen balio materialaz ez zen inoiz interesatu Salvador. Diruaren balioaren berririk ez zuen. Arrebak egin behar izaten zituen ordainketak. Dalí ez zen gai bere kabuz urrats bat emateko, inguruko babesik gabe. Bizitzako eguneroko gorabeheraz arduratzeko gai ez zen. Bizitzan ziurtasun eta independentziaz jokatzeko baliabiderik ez zuen.

Pariseran joan zenean ere, Madrilen bezala, oso herabea zen eta lagun taldearekin harremanak edukitzeko gaitasunik gabea. Hitz egiteko zuen handiki itxuraren atzean gordetzen zen haren fobia soziala. Itxura sofistikatuaren atzean segurtasun falta handia gordetzen zuen. Surrealismoak areagotu egin zuen Dalík oso gaztetatik zekarren joera: irudi bitxi bat sortu zuen, bere jaioztatik herabetasuna gainditzeko. Horrela, lasterketa moduko bati ekin zion, munduko aldizkari guztien azalean agertzera eramango zuena. Bere mozorroa bukaeraraino eramatera behartua aurkitu zen Salvador Dalí. Egun batean, arrebarekin tailerrean zegoela, kanpotar batzuen ahotsak hurbiltzen sentitu zituen eta arrebari esan omen zion: «Barkatu, jendea dator eta Salvador Dalíren mozorroa jantzi beharra dut». Badirudi, beraz, Salvador pertsonaia bat antzeztera behartua izan zela, eta baztertu egin zuela irudi horren kontra joan zitekeen edozer.

Galarekin eta Buñuelekin harreman objektal egonkorrak eduki zituen, baina genitalitate heldurik ez zuen garatu. Beti gogoratu izan zituen aitaren liburuan ikusitako gaixotasun benereok. Bulkada genitalak oso modu heldugabean bizi izan zituen. Voyeurismoan eta masturbazioan babestu zen. Interes handia agertzen zuen ipurdiekiko eta gorotzekiko ere («Gazte birjin autosodomizatu eta «Jolas goibela»).

Dalík gehiegizko handitasun sentimendua eta gehiegizko desbalorizazioa txandakatzen zituen. Haren jarrera egozentrikoa eta gehiegizko exhibizionismoa loturik zeuden. Inguruko zenbaiten iritziz, besteekiko sentikortasunik ez zuen eta batzuetan tratu txarrak ematen zizkien.

Dalík bere hildako anaiarekin bikote bereiztezina osatu zuen beti. Inoiz ez zuen lortu harengandik askea zen identitaterik. Bere amarekin harreman fisionala eduki zuen; nahi zuen guztia egiten uzten zion bere amak, eta ezin zen harengandik afektiboki bereizi. Beti eduki zuen amak bere handitasunean

irentsiko zuen beldurra. Horregatik egiten zion halako inpresioa Milleten Angelusak.

Ama hil eta handik hainbat urtetara, berriro ama-irudi batekin (Galarekin) egin zuen topo eta harekin batasun fusionalean elkartu zen. Hasiera batean Galarekiko jarrera erasokor batzuk eduki eta gero, biek osotasun bat eratzen dute eta besteengandik bereizten dira. Nartzizismoari dagozkion honako bereizgarri hauek agertzen ditu Dalík, gutxi edo gehiago: 1) Mugagabeko arrakasta, botere, distira, edertasun eta irudimenezko amodioen fantasiaz kezkatzen da. 2) Berezia eta bakarra dela uste du, eta bereziak direnek bakarrik uler dezaketela, edo bereziak nahiz goi-mailakoak diren pertsonekin edo erakundeekin bakarrik eduki ditzakeela harremanak uste du. Dalík bere burua maisu handiekin alderatzen zuen, jeinutzat eta pintura modernoaren salbatzailetzat zeukan. Berezia izan beharra txikitako identitate arazoetatik zetorkion. 3) Gehiegizko lilura sortu beharra zuen. 4) Asmo handiegiak zituen. Tratamendu berezia jasotzeko arrazoirik gabeko igurikapenak zituen, edo bere igurikapenak automatikoki beteko zirela uste zuen. 5) Hainbat ezagunen iritiz, enpatiarik ez zuen: besteen sentimenduekin eta premiekin identifikatzeko zailtasunak zituen. 6) Dalí psikologikoki zauritua sentitzen zen norbaitek kritikatzeko zuenean.

Bere identitatea puztu eta exajeratu zuen, anaia hilaren iruditik bereizteko eta ama irenslaren grabitazio eremutik ihes egiteko. Bere emaztearekiko bakarrik agertzen zuen afektua eta esanekotasuna. Emaztearekin zuen harreman bitxia intimitate eta bakartzearen arteko gatazka ebatzi gabeari zor zaio. Gala eta Dalík osatzen zuten bikoteak ez dirudi harreman sexual genitalik eduki zuenik, eta ezta harreman anal eta oral kontsumaturik ere; badirudi, voyeurismora eta exhibizionismora mugatu zirela, eta Galak bere desirak pintore gaztetxoekin asebetetzen zituela.

Galak jokatzeko du gizartearekiko lotura zubi moduan. Dalík afektu gutxi jartzen du Gala ez den beste norbaitengan. Hori bai, mozerro histrionikoa agertzen du gizartearen aurrean, eta haren atzean babesten da. Dalík pertsonaia bat asmatu zuen bere identitate krisiari ihes egiteko. «Salvador Dalíren bizitza sekretua» liburuaren helburua ere irudimenezko pertsonaia hori sortzea zen. Liburuaren eskuizkribua ulertezina zen, Dalík ez baitzuen hizkuntzaren legerik errespetatu nahi. Galak zuzentzen zituen Dalíren idatzien zirriborroak eta forma ulergarria ematen zien. Hala ere, mozerro histrionikoa erabiltzen bazuen ere, badirudi Dalíren histrionismoak ez dituela histrionikoaren baldintza guztiak betetzen, eta ez dela benetako histrionikoa, bere identitatea ez baitago besteen lausenguen mende, Galarekin eratzen duen osotasun sinbiotikoaren mende baizik. Ikusi ahal izan ditugun bideoen arabera, Dalí ez dute inpresionatzen eta asaldatzen jasotzen dituen laudorioek, normalak iruditzen zaizkiolako. Baina, mintu egiten dute kritikek, bere irudi puztu nartzisista ukitzen dutelako.

Ondorioa

Dalíren oinarritzko identitatea nartzisistarena izan arren, agertzen ditu nortasun histrionikoaren nahastearen bereizgarri batzuk ere: 1) Emozioen adierazpenaren dramatizazioa, teatralismoa eta exajerazioa. 2) Sugestionagarritasuna. Erraz eragiten diote besteek edo zirkunstantziek. 3) Besteen arretagune ez den egoeretan ez da eroso aurkitzen. Portaera arreta bilatzailea agertu zuen txiki-txikitatik, adibidez, zubitik beste haurra botaz edo eskaileretatik jauzi eginez. 4) Bestearekiko elkarreraginean sedukzio-portaera desegokia edo jarrera probokatzaila. 5) Arreta bereganatzeko bere itxura fisikoa erabili ohi du eskuarki. Exhibizionismorako joera agertzen du.

Dalí mozturro baten atzean gorde zen etengabe eta identitate propiorik ez zuen garatu. Izaera nartzisista eta histrionikoaren artean kulunkatu zen; izaera nartzisista babesten zen Galarekin zuen erlazio sinbiotikoan, Galak irents ez zezan; izaera histrionikoak eskaintzen zizkion mozturroetan babesten zen, bikote fusioaletik at zeuden besteekin modu profesionalean harremanak edukitzeko. Histrionismoan mozturro harrigarriak erabiltzen ditu besteengandik bereizteko eta besteen arreta erakartzeko, eta nartzisismoan bere burua puzten du besteengandik bereizteko. Energia erotikoa Galarekiko harremanetara bideratzen du eta energia thanatikoa besteengana zuzentzen du. Energia erotikoa bere burua elikatzen du eta energia thanatikoa besteengana bideratzen du, besteei jaurtikitzen die, eta besteen erasoetatik mozturro histrioniko bidez eta indiferentzia nartzisista bidez babesten da. Era berean, haurren fantasia sexualak eduki zituen: 1) Oralitatearen aztarnak «Udazkeneko kanibalismoa» koadroan agertzen dira. 2) Analitatearenak, besteak beste, «Gazte autosodomizatua» eta «Jolas goibela» koadroetan. 3) Aro falikoa koadro askotan agertzen da: luzakin bigun eta luzea, makuluz sostengatua, inpotentzia adieraziz. 4) Sexualitate perbertso-polimorfoa «Masturbatzaile handia» koadroaren bidez agertzen du.

Erreferentzia bibliografikoak

- AKHTAR, SALMAN (1989), «Narcissistic personality disorder: Descriptive features and differential diagnosis». *PSYCHIATRIC CLINICS OF NORTH AMERICA*, 2(3): 505-530.
- AMERICAN PSYCHIATRIC ASSOCIATION (2000), *Diagnostic and statistical manual of mental disorders* (4. arg., testu berrikusia). Washington, DC: American Psychiatric Association.
- BENJAMIN, LORNA (1993), *Interpersonal diagnosis and treatment of personality disorders*. New York: The Guilford Press.
- BUÑUEL, LUIS ETA DALÍ, SALVADOR (1929), *Un chien andalou*. New York: Palgrave MacMillan.
- CAIN, NICOLE M., PINCUS, AARON L. ETA ANSELL, EMILY B. (2008), «Narcissism at the crossroads: phenotypic description of pathological narcissism across clinical theory,

- social/personality psychology, and psychiatric diagnosis». *Clinical Psychology Review* 28: 638–656.
- DALÍ, ANA MARIA (1993), *Salvador Dalí visto por su hermana*. Barcelona: Parsifal.
- DALÍ, SALVADOR (1973), *Confesiones inconfesables*. Barcelona: Editorial Bruguera.
- DALÍ, SALVADOR (1993), *Vida secreta de Salvador Dalí*. Barcelona: Antártida.
- FENICHEL, OTTO (1945), *The psychoanalytic theory of neurosis*. New York: W. W. Norton.
- FREUD, SIGMUND (1996), «Introducción al narcisismo». In Sigmund Freud: *Obras completas*, XIV. alea, 9. argitalpena (jatorrizko izenburua: *Zur Einführung des Narzissmus* (1914). Itzultzailea: José Luis Etcheverry. Buenos Aires: Amorrortu.
- GAGAN, RICHARD J., CUPOLI, J.MICHAEL ETA WATKINS, ALISON H. (1984), «The families of children who fail to thrive: Preliminary investigations of parental deprivation among organic and non-organic cases». *Child Abuse and Neglect* 8(1): 93–103.
- HORNEY, KAREN (1939), *El nuevo psicoanálisis*. México: Fondo de Cultura Económica.
- HYLER, STEVEN E. (1994), *PDQ-4 Personality Questionnaire*. Unpublished scale. New York: New York State Psychiatric Institute.
- KERNBERG, OTTO (1975), *Borderline conditions and pathological narcissism*. New York: Aronson.
- KERNBERG, OTTO (1984), *Severe personality disorders: Psychotherapeutic strategies*. New Haven: Yale University Press.
- KOHUT, HEINZ (1966), «Forms and transformations of narcissism». *Journal of the American Psychoanalytic Association* 14: 243-272.
- KOHUT, HEINZ (1971), *The analysis of the self: A systematic approach to the psychoanalytic treatment of narcissistic personality disorders*. New York: International Universities Press.
- LADD, E. RUSSEL, WELSH, M. CAY, VITULLI, WILLIAM F., LABBE, ELISE E. eta LAW, JOSEPH L. (1997), «Narcissism and causal attribution». *Psychological Reports* 80: 721–722.
- LÓPEZ HERRERO, LUIS-SALVADOR (2004), *La cara oculta de Salvador Dalí*. Madrid: Síntesis.
- MILLON, THEODORE ETA DAVIS, ROGER (1998), *Trastornos de la personalidad. Más allá del DSM-IV*. Barcelona: Masson.
- MILLON, THEODORE ETA DAVIS, ROGER (2000), *Personality disorders in modern life*. New York: Voiley.
- ORGANIZACIÓN MUNDIAL DE LA SALUD (1992), *CIE 10: Trastornos mentales y del comportamiento. Décima Revisión de la Clasificación Internacional de las Enfermedades*. Madrid: Meditor.
- RASKIN, ROBERT N. eta HALL, CALVIN S. (1979), «A narcissistic personality inventory». *Psychological Reports* 45(2): 590.
- RASKIN, ROBERT N. eta HALL, CALVIN S. (1981), «The Narcissistic Personality Inventory: Alternate form reliability and further evidence of its construct validity». *Journal of Personality Assessment* 45: 159-162.
- RIENZI, BETH MENEES, FORQUERA, JOHN. eta HITCHCOCK, DOI L. (1995), «Gender stereotypes for proposed DSM-IV negativistic, depressive, narcissistic, and dependent personality disorders». *Journal of Personality Disorders* 9: 49-55.
- STONE, MICHAEL (1993), *Abnormalities of personality. Within and beyond the realm of treatment*. New York: Norton.
- TARTAKOFF, HELEN H. (1966), «The normal personality in our culture and the Nobel Prize Complex». In Rodolphe M. Lowenstein, L. Max Schur, & Albert J. Solnit (arg.),

Psychoanalysis: A general psychology, essays in honor of Heinz Hartmann, or. 222-252. New York: International Universities Press.

TSCHANZ, BRIAN T., MORE, CAROLYN C. eta TURNER, CHARLES W. (1998), «Gender differences in the structure of narcissism: a multi-sample analysis of the Narcissistic Personality Inventory». *Sex Roles* 38: 863–870.

VALDIVIESO, MIQUEL EMILIO (1992), *El drama oculto: Buñuel, Dalí, Falla, García Lorca y Sánchez Mejías*. Madrid: Ed. de la Torre.

VOLKAN, VAMIK D. (1981), *Linking Objects and Linking Phenomena: A Study of the Forms, Symptoms, Metapsychology and Therapy of Complicated Mourning*. New York: International Universities Press.

ZIMMERMAN, MARK eta CORYELL, WILLIAM H. (1990), «Diagnosing personality disorders in the community». *Archives General of Psychiatry* 47: 145-149.